

**LOIDITAR PABEN**

(Aurtengo urriaren 26'an, «Euskerazaintza»-k Loidiri  
Igeldo'n egin zion omenaldian irakurritako lana).

Loidi'tar Paben! Gizaseme zintzo, Jainko-zale errime ta euskaldun olerkari gartsu. Itzaldi murriz onetan Loidi'ren iru azpegi auk azalduko dizkizuet.

**I.- Gizaseme zintzo**

Nola jakin zelakoak geran? Ez da errez, gizonok misterio aundi bait gera. Ba-ditugu, ala ere, bide batzuk gizona naiko ongi ezagutzeko.

Ez gera izaki mutu. Euleak cuna ciotzen; guk, ordea, itzak ciotzen ditugu, pentsamentuak sortu ta biotzak berotuak. Eta itz-egitean or doa gure zerbait, ingurukoak artzen dutena; gure arima zati bat, nor geran erakusten duena. Mintzatuz, beraz, ezagutu genezake, pizkat beintzat, nor nor dan.

Loidi, nik ezagutu nuenetik, oso alaia zan, ezpain-ertzean beti irripar dardaratia erakusten ziguna. Begietan, ezpainetan, ots, aurpegian erakusten omen dugu geienbat geure arimea. Nirñir gozoz gainezka zitun Loidi'k bere begiak; ezpainak, esan dugu, irripar-lorez aberats; aurpegi zabal ongi eratua, guztiontzat erakarkor.

Baiña batez be, nik uste, arimea zati aundika lortu oi ditu-

gun idaztietan dugu lagatzen. Norbait, ezagutu ezta ere, begiz ikusita diot, norbait ori nor eta nolakoa dan, errez atera dezakegu bere idazti-zati bat irakurriz. Or daude bere pentsamentuak, or bere biozkadak, or bere kezka ta zalantzak, uste ta iritziak. Loidi'ren olerkietatik, neke aundi barik, atera leike zer joera motako zan.

Añorga'n munduratu zan Loidi'tar Paben, 1909'ko abenduaren 22'an. Ni baiño iru illabete gazteago zan, beraz. Bi-iru urteko zala aita il zitzaion, eta gero aurtzaro guztian bere izebarekin bizi izan zan Orio'n. Orixegaitik, Añorga bezin sort-erri du Loidi'k Orio; itxas-erritxo au dala-ta, ainbat oroigarri ditu bere olerkietan: «Orio'ko umezurtza»; «Orio'ko Motxa», «Orio, ijito-erria», «Orio'ko San Martinetan», «Orio'ko Zaindari Santuei» ta abar.

Eliz-deia barnean sentituz, Andoain'en eta Saturraran'en leenengo ikasketak egin ondoren, Gasteiz'en bukatu zituan Teoloji ta onen inguruan ikasten diran enparauak. Ondoren, Mateo Muxika, Gasteiz'ko gotzain zala, 1935'an iritxi zuen apaizgoa. Eta urte berean, Añorga'n eman zuen meza berria opa-izlari Aitzol zala.

Nun egin zuen arima-zaintza? Emen ere, ageri denez, zintzo-zintzo jokatu zuen Loidi'k: nora bialdu, antxe zegoen alai ta pozik, arima zaintzan lanari lotu ta gogotsu ekiñez. Apaiztu ta bertatik Laminoria ibarreko Musitu arabar erritxora bialdu eban gotzaiak, Martin Lekuona'k utzi zuen utsunea bete ta an onen lanari jarraitzeko, Araba euskeratzeari ain zuzen.

1936'an anai arteko gerra. Ara doa Loidi ere, «Regulares» gudarozteko kapellau izanik. Iru bat urte ortan egin ondoren, eta guda bukatu, 1939'an Bizkaia'n daukagu leengo egitekoan, arima-zaintzan; Karrantza baillarako Aldeacueva ta Sierra bere ardurapean sei urtetan eukirik. 1945'ko azaroaren 15'an Igeldo'-ko txauburu izentatua izan zan. Ementxe eman zizkigun, bere arloan beti zintzo, il arteraiñoako egunak.

Ez, etzan egundo muker agertu eman zizkioten eleizalde-

tan. Bestera baizik. Olerkari zanez, iru erriok goraiatzuten ditu, arnas aundiko, besteak beste bere oler lanetan. Musitu'n, esaterako, pozik zegoen. Mendi-zale zan eta ango mendiz mendi ibilirik, zoragarria iruditzen zitzaion inguru aietako ikuspegi zabala.

Ona olerkitxu au Musitu'ri eskaifia:

Arabian zear goazelarik,  
begiak zaizkit larritu;  
biotz-erleak ezti-gar billa  
emen nai luke gelditu...  
Entzia-mendi oietan nintzan  
artzai ni asi-berritu:  
larrean goxo nitun ardiak  
gudak zizkidan urritu...  
Amaika leku ezin-obeak  
euskal-mendiak ba ditu,  
oien artean txikia baiña,  
zoragarri da Musitu.

Karrantzako erritxu biak, sei urte igaro zituenak, orpoz beste muturrean zeuden. Baiña, guda amaitu ostean, an ere biotz-argi. Bere poesi-liburuan «Karrantza'ko Izpiak» deritzan lan luze bat, 25 estrofakoa, agertzen da, izenburu auekin: 1) «Pasiegoa»; 2) «Apaiza ta sakristaua»; 3) «Epai zorrotza»; 4) «Apaiz gorriak»; eta 5) «Sermoi politikoa». Zortziko txikietan daude aapaldi guztiak. Eta dira ango oitura, gizaseme, emakume ta gairierakoei ziria sartu ta leun-leun, iflori miñik emateke, darda gairi erabiltea. Loidi'k ba-du ortarako gatz ta piperra.

Sarri aipatzen digu Igeldo, naiz meza berri bat dala, naiz mixioak... Meza berri baten onela abesten du, Balentin Zamora-Arrillaga jaunaren meza berrian ain zuzen:

Jainkoak lur onean  
egin du ereintza,  
goxo-goxo emanaz  
zeruaren intza...  
Loretegi ederrak  
Igeldo deritza

An erne da gizonen  
alde apaizgintza,  
biziki dakarrena  
fedearen mintza.  
Arengandik jaso ta,  
txastatzen gabiltza  
Jainkoaren itza.

Eta «Josetxo aldarean» deritzaionetan arturiko beste zati au:  
Mendizorrotz'en otea lore,  
Itume'n erromeria...  
Lili gardena maite duena  
gaur Igeldo'ra dijua,  
an loretu da zerua.

Ikus dezakegunez, bada, Loidi zintzoa, biotz aundikoa dugu itze-  
tan, egintzetan eta idatzietan.

## II.- Jainko-zale errime

Gizasemeak, barruz oker-okar egin ezik beintzat, berez di-  
tugu Jainko-zale, Mundua Jainkoak sortua da; ezetz diona ez ote  
da gezurti? Eta mundu au ugaltu, obetu ta indar-azteko ta  
zaintzeko, jarri zuen berton gizona. Jainkoa da, beraz, gure aita  
ta egille. Aitari, orde, denak zor diogu maitasuna, begirunea ta  
atxikitasuna.

Gizonak munduan eginkizun asko dauka. Au onetarako ta  
bestea aretarako. Jainkoak berak ornitzen gaitu bere doai ta gai-  
tasunez, bakoitza bere arloan ipiñirik. Apaiz-deia, Jainko beraren  
zerbitzurako aukeratua izatea, doai berezi-berezia da. Eta gizase-  
me denak Jainkoaren deiari erantzun-bearra ba'daukate, geiago  
oraindik apaiz-deia artu dutenak.

Loidi'k dei ori izan zuen, gero eziketaz eta inguruko itz  
eta irakatsi onez sustraitu ta aurrera eramana. Eliz-ikasketak etzi-  
tun zabar egin, eta gertakuntza orren ostean, bere barne-deiari  
erantzun jatorra emanik, arima-zai egon zitzaigun tokietan beti  
ari izan zan apaiz errime bati dagokionez.

Zertan erakutsi ote zuen ori batez ere? Parrokiko gauzak ganoraz, azkar, alai ta Jainko-zale burutzean; eliztarrak poztu, lagundu, sakramentuak eramán, azken orduan beren nekeak arindu-azi ta artzai bezela agertzen; eta baitik bat eliz-zeremoni ta gainarakoak bertso sakon, gartsu ta egokiz apaintzean.

Aur-bataioetan abestu zigun; eztaietan, mixioetan, jaietan, illetetan abestu zigun. Ots, Loidi'k kezkek eta naigabeak bizitz-une alaiak eta poztasunak, neguz ta udaz, atertu barik abesten eban. 1977'an Kardaberaz taldeak argitaratu zion olerki liburuarri, zerbaitegatik jarri zion titulu au: TXIRULIRUKA. Gure lur-bazterretan ba-dira iñoiz ixildu gabe kantatzen duten txoriak. Irakur liburu au, ta baietz esango didazu, Loidi ere orrelaxe zala.

Euskalduna berez zaigu kantari. Baiña berezkoari ere laguntza eman bear zaio, ikasiz, irakurriz eta idatziz. Landan oparo dugu ederra, Jainkoak ereiña; ori jasoten ikasi egin bear da. Baita ba-ditugu barruan ere bi indar, adimena ta naimena -burua ta biotza, esan oi dugu euskaldunok- indar oiekin jokatzuz, geronek ere ederra sortzeko. Eder-jasotzaille ta sortzaille genuen Loidi.

Nik ez dakit noiz asi zan idazten, Orio'n ala eliz-ikastetxeetan. Eliz-ikastetxeetan ziur asko; apaiz egin aurretxoan beintzat, 1934'an, Gasteiz'en ikasle zala, Zarautz'en ospatu zan V'garren Eusko-Olerki Egunerako bialdu zuen lanak, Eusko poemetan, leenengo saria irabazi zigun. «Orio'ko Umezurtza» zeritzan olerki oni, 53 bat estrofaduna. Eta Lekuona zaarrak onela: «Guretzat -eta edozeñentzat- sentimen eta artez onena, «Orio'ko umezurtza», danotan osotuen».

Au ere ez dakit nun ikasi zuen, Aitzol zanak ain bizi opa zuen erri-olerkera jatorra. Au, egia esan, gure bertsolariak eta neurtizlari zaarrak irakurri ta aien lanak ausnartuz irixten dana duzu. Izan ere, gure idazle zaarren artean amaika bitxi eder, amaika lore bikain usaitsu ba-dugu ta aurkitu genezake geure bertsozko naiz itz-lauzko lanak edertu, apaindu ta bizi-azteko.

Gisa orretan jokatu zuen Loidi'k, eta bertsogille oparoa,

erri-senaz jantzia gertatu zitzaigun. Prest zegoen beti edozein gauza, pirtzil naiz garrantzitsu kantatzeko. Igeldo'ko elizak eta inguruak ez dute Loidi'ren bertso gutxi aditu! Iturritik ura iduri, borborka zerion aren biotzari olerki apaiña.

Berrogei urte egin zituen Igeldo'n apaiz-lanean, 1945'tik 1985'ra. Esan dezadan berriz ere, beti alai ta Jainko-zale; olaxe digute bere bertsoak. Ementxe zegoela ondu zituen bere poesirik geienak. 10 dira bere «Txirulika» liburuan datozenak bost txortatan bananduta: 1) *Oriotarrak*, 19; 2) *Linika eta*, 21; 3) *Eliza*, 25; 4) *Errizaleak*, 26, eta 5) *Lagun artekoak*, 13.

Ona lendabizi «Eliza» saillean datozen batzuk. Bere meza berriari buruz da leen-aipamena. Onan kantatzen du:

Aldare-bordatxoan  
Artzai Ona det zai,  
Bere artzai-makilla  
neretzat eman nai...  
Apaiz egin nau eta  
beartsuen anai,  
itxuén argi-mutil  
saminduen alai...  
Ardi galduén billa,  
gau r'egun da nunai,  
irrintzika bear det  
mendiz mendi jarrai.  
Zeruko barrutian  
egingo degu jai.

Bertso-lerro apain dotoreak. Bordatxo iduritzen zaio alda-rea, ta antxe du zai Artzai ona, Kristo, berakin leen-meza emateko. Zein irudi polita! Kristok bere artzai-makilla eman nai dio, bere ardiak larratu ditzan Musitu'n, Karrantza'n, Igeldo'n... Ta Loidi'k beartsuak dauzka gogoan,itsuak, saminduak, ardi galduak; auen billa ibilliko da, Kristo Judea'n zear bezala, mendiz mendi, etxez etxe, irrintzika bere bizi guztian. Atsedetik? Ez! Zeruko barrutian izango du ortarako denbora.

Metrika aldetik ezta onek akatsik, ezta Loidi'ren beste ba-

tek ere. Atsegin zitzaion bere lanak ondo biribiltzea. Zortziko txikia dezu berau. Rima zeatzekoa zazpi -ai ditu: «zai», «nai», «anai», «alai», «nunai», «jarrai», «jai». Gaurko bertso zuri zaleak diotenez, azken-oskidetza onek lotu egiten omen du olerkaria rima eder eta guzti ere, Loidi'k etzuen loturarik somatu bere pentsamentu ta sentimenak ederki adierazteko.

Edu orretan ditugu beste guztiak ere, txukun eta argi. Elizkizunak abesten ditu, erriko jaiak; lan-egin bearra, Hipona'ko arranoa, santuak, adiskideak goratzen, gaurko apaizen joerak, Sortzez Garbia, Seminario eguna (Txori lepo gorria), mixioak, Gogo-jardunak, Larrea'ko Ama Birjiñea, Xalbador bertsolariaren argi-ola...

Apaiz zan, eta Jainko-zale, berezkoa zan bada aren goitar kantu.

### III.- Euskaldun olerkari gartsu

Kantari zan egiazki. Orrelaxe agertzen zaigu, ezin dezakegu uka, bere poesi liburu «Txiruliruka»-n. Euskaldunok berez omen gera kantari ta bertso-zale; nik ori uste dut. Euskalerria, izan ere, lur ta ur, mendi ta ibar, uri ta baserri, geuk uste dugun baiño ere eder bikainagoa dugu. Naiz-ta berton jaio ta biziak geralako, guk bear bestean ederretsi ta miretsia ez izan. Ederkabi onetan, beraz, etzaigu zail eder-kantari izatea. Ez, ez joan Ganges aldera, euskaldun olerkari zaitugun ori, asmakizun eta metafora billa. Zabal begi biak, eta ikus zer duzun ingurumari.

Orrela egin zuen Loidi'k. Bai umetan eta bai gero, itxas-urbil bizi izan zan. Eta nola abesti zitun itxastarren gauzak! Kresal urdin gain joranez dabiltzanen kezka ta urduritasunak. Baiña estropadak, arraunketak batez ere. Gure Orixe ere ortan jarduna dugu, bere «Euskaldunak» poeman daukagu kantu bat, 74 estrofakoa. Orixe'ri bere maisutasunean ezer kendu gabe, Loidi'k, nire iritziz, bizitasun geiago ezartzen dio bere nor-geiagoka itsas-leiaketari.

Esan dugunez, «Txiruliruka» liburuak bost atal dauzka. Le-

nengoak «Oriotarrak» du izenburu, 19 poesi daramazkina. Aue-  
tatik zortzi-amar itxas-gizonai eskeiniak ditugu. Gipuzkoa'n eta  
Bizkaia'n arraunlari asko ta onak zeuden, eta gaur ere ba-dagoz.  
Loidi'k danen gaiñetik jartzen ditu Oriotarrak. Estropada egu-  
nean atsegin zitzaion Kontxa aldera jastea. Eta an etzan ixillik  
egongo, patroiak -Olaizola ta Mitxelena- ez-ezik, beste arraun-  
lari trebe zaluak ere txalotuz eta sustatuz.

Ona nolako bizitasuna darabilen «Estropada» deritzane-  
koan. Goiz eder alaia. Alderdi-Eder, mendi ta kai, margo bizitan  
dirdai; ontziak millaka, noiz irtengo zai. Jentearen emana, kalean  
eta inguructan, ormatik zintzilika, aitzetan atxiki; tinko daude  
dagoneko arraunlariak, borroka egarri, eta inguruak aiengan  
begi ta belarri. Bakoitzak du bere kolorea. Olerkariak kanta:

Pasaia'k gorrizka du,  
Orio'k oria,  
Ondarrabia'k musker,  
txuri Donostia.  
Besoak luzatuta,  
au ezin geldia!  
Erne daude artzeko  
irten-agiria.

Or dijoaz denak kementsu. Zein buru? Ba-da alegiñik, eta  
olatu aparrik! eta jendea legorrean gabe oiuka bizi-bizi! Olerka-  
riak:

Balcak dirudite  
ur-pean galduaz;  
azaldu dira berriz  
urak arrotuaz...  
Amalauko zaunko duten  
pistiak ur-joaz,  
olatuai agurka  
dotore dijoaz.

Era berean beste amabi aapaldi, txairo ta bipil. Amairuga-  
rrenak onela:



Arranoak aidean,  
arraiak igari..  
Oriotarrak dira  
berez arraunlari.  
Oiekin estropada  
beti kontuz ari..  
Duana eman bear  
zaio duanari.

Orio garaille. Ori bai zan lege! Esan dezagun, bai, aspertu arte: Loidi, gure Loidi, Pindaro Grezia'n, ango erri-jokuak kantatzeko bezin errime ta sutsu gentuen guk geure jolas, joku ta kirolak bertso duiñez goretsi ta edertzeko.

Orrez gain Euskalerrriak bere-bere ditun oitura ta gai bereziak abestu zitun; adibidez txapela, pelota, aizkolariak, txirrindulariak, gizaseme ospetsuak, Iparragirre, Naparroa, Orreaga'ko gudua, Igeldo'ko organista Alejandro Alberdi, Gurelesa, txistulariak, Pasaia erria, Aralar, aitzuloak, baserria ta euskara..

Eta bertso leun, ezti ta arin guztiok txori kantari baten antzeko txiruliruli iduri dira. Lekuona zaarrak, esandako liburuari jarri dion itzaurrean txori kantari batekin konparatzen du Loidi. Zein txori kantari ote? Urretxindorra nunbait. «Gure Pabe'n olerki-jarduiroak -dio-, erresiñul poxarena dirudi: jardurio ezti, apain, jostailu, dantzari; umoretzar-aldian umore-ongarri irakurtzeko olerkariaren erregali».

Bego emen Lekuona'k toki berean dioskun au ere: «Gure olerkari guziak ez bait dira erresiñul. Ba dira, turutots bildurgarria dariotenak... Ba dira, beti norbaitekin asarre diarduten olerkari erretxiñak... Ba dira, beti lantu jo diardutenak ere» Loidi Peña'tar Paben'ek ez du turutik joko, ez du etsairik; mundu guztia du maite ta bakoitzari berea eman oi dio bere oler-lanetan.

#### IV.- Nolako olerkaria?

Ase-gaitza dugu gizonaren jakin-naia. Baita onezkero zuona ere. Maiz aitortuko dugu Loidi olerkari ona dela, ta adibide

batzuek ere olaxe erakutsi digute. Ala ere, barnean dugun zalantza etzaigu uxatzen. Zer egin?

Ikus dezagun nola jokatzten duen olerkari, benetako olerkari denak, bere oler-lanak sortu, biribildu ta osatzean.

Nolabait ederra adieraztea dugu olerkia. Izadiko gauzak, asko ta asko, ederrez gainezka dauzkagu. Baiña ba al dakigu eder ori jaso ta adierazten? Gure barruak ere ederra sortzen du. Baiña denok al gera eder-sortzaille? Ona koska.

Almena ba-dugu, baita naimena ere; baiña ba ote dugu indarrrik eta egokitasunik auek erabilteko? Emen ere koska. Buru ta biotz gera, ta bi indar aueri taiuz eraginik, sorpenak egiten, olerki-sorpenak. Loidi gai zan ortarako; bere poesi lanak ori darakuskue. Barne-kemena, egokitasuna sorpenetan.

Ar dezagun edozein olerki arek sortutakoetatik, eta or daukagu argi ta garbi aren adimenaren ditzira bipilla, aren biotzaren zauskada gozoa. Pentsamentuak eder jazten ditu. Sakon eta bizi; biotzak dardarti agiri zaigu aren idaz-lanetan, garbi eta sarkor. Guztia asmamen eta irudimenaren jantzi apainhez aberats.

Trebetasuna ta maiña bear dira pentsamentuak eta biozkadak alik eta dotoreen apaintzeko. Ikasiz, irakurriz eta idatziz jabetzen gera trebetasun ortaz. Irudi, metafora ta gainarakoak orretarakoxe dira. Loidi'k ba ekien bertsoak euskal ederkera txanbeliñez jazten. Aipatu dugunez, zortziko txikian landuak beronen olerkirik geienak, naiz-ta banaka batzuk nagusian ere osotuak euki. Bederatzi puntukoak ere ba-ditu, guztiz trebe ta errez lortuak. Ona zatiño au, «Zigor-lana apaizari» deritzanetik jasota.

Madrid'tik asi dira  
jotzen danboliña,  
askatasun-ametsen  
txiripistiña...  
Idazle lotuentzat  
dakar atsegiña  
esateko karaitza

ez dala buztia.  
Egiaren griña  
azaldu eziña  
aspaldiko miña  
nuan ta, jakia:  
Ezin txalotuko det  
gaizki egiña.

Orrelaxe beste zortzi aapaldi ere. Añorgatarrari ez dio erri-  
mak oztoporik jarten, ez, bere pentsamentu ta sentimenak neu-  
rri artezean eta azken oskidetza legezkoak ipiñi al izateko. Loidi,  
beraz, Lizardi, Orixe, Lauaxeta eta oien mallako ez badugu ere,  
bertsolari mailla baiño gorago egaz dagian olerkari txukuna  
dugu.

*Aita Onaindia*

## **BANCO DE BILBAO**

**100 urte baiño geiago bezeruen zerbitzuan**

**ESPAÑA'KO BANKO BAKARRA  
ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN**

**Ofizinak: Karmen kalean, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)**